DigitAll

Gaitasun
digitaletan
prestakuntza

4

Segurtasuna

DigitAll

Gaitasun
digitaletan
prestakuntza

Segurtasuna

A1 maila

AURKIBIDEA

DigitAll

Segurtasuna

4.1
GAILUEN BABESA

Segurtasuna

A1 maila 4.1 Gailuen babesa

Informazioaren segurtasun-printzipioak

Informazioaren segurtasun-printzipioak

Informazioaren segurtasunak funtsezko zeregina du gaur egungo gizartean. Guztiok erabiltzen ditugu egunero sistema informatikoak gure informazioa kudeatzeko, bai maila pertsonalean, bai enpresa batean edo administrazio publikoan. Gure datuak formatu digitalera migratzeak arrisku batzuk dakartza, eta arrisku horiek ezagutu eta kontrolatu behar ditugu, datu horiek arriskuan jar ditzakeen erasorik ez jasateko. Gai honetan, informazioaren segurtasunaren kontzeptua definituko dugu, harekin lotutako termino batzuk aurkeztuko ditugu eta gure datu digitalak babesteko jarraitu beharreko zenbait printzipio azalduko ditugu.

Informazioaren segurtasuna

Informatikaren munduan, sistemak edo horiek kudeatzen duten informazioaren babesarekin lotutako termino ugari daude. Informazioaren segurtasuna da horietan lehena. Kontzeptu hori ulertzeko, lehenik eta behin, informazioa zehatz-mehatz zer den definitu behar dugu. Informazioa da "edozein modutan komunikatu, aurkeztu edo gorde daitekeen ezagutza oro" (*CCN-STIC-431: 2006*). Ildo horretan, mezuen, mezu elektronikoen, datu-baseen eta abarren moduan aurki daiteke informazioa.

Informazioaren segurtasuna, beraz, informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna babestea da (*UNE-ISO/IEC 27000:2014*). Hiru kontzeptu horiek informazioaren segurtasunaren hiru dimentsioak osatzen dituzte, eta **CIA Triada** (ingelesez, *Confidentiality, Integrity and Availability*) moduan izendatu dute era bateratuan. Ondoren, horietako bakoitza deskribatuko da labur:

1 | **Konfidentzialtasuna**: informazioa isilpekoa dela eta baimendutako pertsonek soilik eskuratu eta ikus dezaketela bermatzea.
2 | **Osotasuna:** informazioa baimenik gabe ez dela aldatzen ziurtatzea.
3 | **Eskuragarritasuna:** informazioa eskuragarria izateko eta, eskatzen denean, hura erabiltzeko prest egoteko ahalmena.

CIA TRIADA KONFIDENTZIALTASUNA, OSOTASUNA ETA ESKURAGARRITASUNA

CIA Triada kontzeptua sartu da: Konfidentzialtasuna, Osotasuna eta Eskuragarritasuna. Kontzeptu hori osatzen duten zati guztiak adibide erraz baina benetakoen bidez azalduko dira, eta kontzeptu horrek informazioaren segurtasunean duen garrantzia nabarmenduko da.

e.digitall.org.es/A4C41A1V02

ISO-7498-2 arauaren barruan, "segurtasun-zerbitzu" gisa definitzen dira CIA Triadaren segurtasunaren hiru dimentsioak. Konfidentzialtasunaz, osotasunaz eta eskuragarritasunaz gain, arau horretan jasotako beste segurtasun-zerbitzu batzuk ere badira:

1 | **Egiaztatzea:** bera dela dioena benetan bera dela bermatzea, bai komunikazio batean, bai informazio baten egile gisa.
2 | **Ez arbuiatzea:** igorleak edo hartzaileak mezu bat transmititzeari edo jasotzeari uko egitea saihestea, hurrenez hurren.
3 | **Sarbide-kontrola:** baliabide baterako baimenik gabeko sarbidea saihestea.

Informazioaren segurtasuna babesteko hainbat neurriri buruz pentsatzen dugunean, aurreko segurtasun-zerbitzu guztiak hartu behar ditugu kontuan. Puntu bakoitza ulertzeko, banka elektronikoan erabiltzen dugun aplikazioaren adibidea aztertuko dugu.

Gure bankuaren banka elektronikora web-nabigatzaile baten bidez sartzen garenean, lehenik eta behin, eskaintzen dituen zerbitzuen informazio publikoa ikusten dugu. Edozein akats dela eta, orrialdea ez badago eskuragarri, informazioa ez legoke **eskuragarri** kontsultak egiteko. Gure informazio pribatura sartu nahi badugu (gure banku-kontuetara eta -mugimenduetara, adibidez), geure burua identifikatu behar dugu. Horretarako, **egiaztatze-prozesua** egiten dugu, gure erabiltzaile-izena eta pasahitza adieraziz. Jakina, datu horiek zuzenak ez badira, ezin izango dugu gure informazioa eskuratu, **sarbide-kontrola** baitago. Egiaztatu ondoren, geure datuak ikusi ahal izango ditugu. Informazio hori zifratuta bidaltzen da bankuaren zerbitzarietatik gure ordenagailura; beraz, **konfidentziala**

da. Gainera, **osotasuna** kontrolatzeko mekanismoak ere aplikatzen dira, ikusten ari garen informazioa zuzena dela bermatzeko. Azkenik, egiaztatuta gaudenez, gure kontua erabiliz banku-mugimendu bat egiten badugu, bankuak agindua **ez arbuiatzea** bermatzen du.

Segurtasun informatikoa

Informazioaren segurtasunaz gain, antzeko beste kontzeptu batzuk ere erabiltzen dira, baina ñabardura batzuk dituzte. Horietako bat **segurtasun informatikoarena** da, informazioa prozesatzen, biltegiratzen, banatzen eta abar egiten duten bitarteko informatikoetan zuzenean eragiten duten segurtasun-alderdi teknologikoei erreferentzia egiten diena. Puntu honen adibide espezifiko bat da zifratua erabiltzea datuak babesteko, biltegiratuta edo bidean dauden bitartean.

Aitzitik, informazioaren segurtasuna termino zabalagoa da, segurtasun informatikoa barne hartzen duena eta segurtasunaren alderdi sistemikoak ere lantzen dituena, hala nola politikak edo prozedurak. Adibidez, informazioaren segurtasunaren barruan -baina ez segurtasun informatikoaren arloan- honako neurri hauek daude: arriskuak kudeatzeko politikak aplikatzea edo segurtasuna indarrean dagoen araudira egokitzea.

⚠ ADI

Termino oso antzekoak diren arren, **informazioaren segurtasuna** eta **segurtasun informatikoa** ez dira gauza bera. Informazioaren segurtasuna termino askoz ere zabalagoa da, segurtasun informatikoa barne hartzen duena.

Informazioaren segurtasun-printzipioak

Informazioaren segurtasun-maila ona bermatzeko, oinarrizko printzipio batzuk bete behar ditugu. Printzipio horiek oinarrizko ideiak ematen dizkigute, hainbat agertokitan aplika daitezkeenak. Behar bezala aplikatuz gero, ziurta dezakegu segurtasun-maila onargarria izango dugula gure sistemetan.

Pribilegio minimoen politika

Pribilegio minimoen politika jarraitzea baimenen banaketa bideratzeko modu egokia da, informazioa eskuratu eta prozesatzeko orduan. Ildo horretan, pribilegioak erabiltzaile batek informazio jakin baten gainean ekintza espezifiko bat egiteko dituen baimen jakin batzuei buruzkoak dira. Beraz, pribilegio minimoaren printzipioak planteatzen digu eguneroko jarduerak bermatzeko erabiltzaile bakoitzak behar dituen ekintzak soilik egiteko aukera emateko moduan konfiguratu behar ditugula informazioaren baimenak. Erabiltzaile batek edo erabiltzaile talde batek behar baino pribilegio gehiago izatea saihestu nahi da, horrek sistemaren segurtasuna arriskuan jar bailezake.

Ikus dezagun printzipio horren adibide bat. Demagun erakunde bereko erabiltzaile batzuek ordenagailu bera erabiltzen dutela informazio pertsonal jakin bat gordetzeko; adibidez, nominak. Egoera horretan, erabiltzaile bakar batek ere ez luke izan beharko beste erabiltzaile baten nomina kontsultatzeko aukera. Egoera horren konfigurazio posible bat erabiltzaile bakoitzarentzako karpeta bat sortu eta baimenak konfiguratzea izan daiteke, erabiltzaile bakoitzak bere karpeta pertsonalerako sarbidea soilik izan dezan. Kasu horretan, pribilegio minimoaren printzipioa aplikatzen ari gara, bere zereginak arazorik gabe egiteko behar dituen baimen bakarrak ematen ari baikatzaizkio erabiltzaile bakoitzari. Aitzitik, baimenak behar bezala konfiguratuko ez bagenitu, erabiltzaile guztiek karpeta guztien gaineko baimenak izango lituzkete. Ildo horretan, asmo txarreko edozein erabiltzaile, edo eraso bat jasan duen edonor, zeinaren kontua konprometitu den, sistemaren informazioari buruzko segurtasun-arazo potentzial bat izango litzateke.

Sarbide itxia lehenestearen kontrol-politika

Aurreko printzipioarekin hertsiki lotuta dago sarbide itxia lehenestearen kontrol-politika. Printzipio horren oinarria erabiltzaileek informazioaren gainean dituzten baimenak modu murriztailean konfiguratzea lehenestea da; besterik adierazi ezean, inork ez dezan sarbidea izan. Sarbide itxia lehenestearen kontrol-politikak informazio jakin bat nahi gabe eta oharkabean bidegabe eskuratzea saihestu nahi du.

Politika hori erraz uler daiteke suebakiei buruz hitz egiten badugu. Suebakiak sarearen konexioak kontrolatzen dituzten gailuak dira. Oro har, politika ona da suebaki bat konfiguratzea, sare-konexioak egitea lehenestea saihesteko, eta behar ditugunak berariaz gehitzeko. Hori gertatzen da, adibidez, Windows sistema eragilean berez konfiguratuta datorren suebakiarekin. Suebaki horrek ez dio uzten kanpoko inori gure ordenagailuarekin inolako konexiorik ezartzen, ekipoak berak aldez aurretik hasi ez badu behintzat.

Funtzioak bereiztea

Erakunde batean, garrantzitsua da eginkizunak erakundeko kideen artean banatuta egotea. Enpresetan, normalean, hainbat lan egiten dituzten sailak egoten dira, hala nola giza baliabideen saila, marketinarena edo Informazioaren Teknologiena (IT). Sistema informatikoak erabiltzean eta erakundearen informazioa kudeatzean, langile-talde bakoitzaren eginkizunen eta arduren halako bereizketak zehaztu eta ezarri beharko lirateke. Horrek interes-gatazkak izatea eta pertsona bakar batengan pribilegioak pilatzea saihesten du (segurtasun-arazoak eragin ditzake azken horrek).

Adibide argi bat enpresa bateko sail bakoitzeko langileek egin beharko lituzketen funtzio eta zereginetan ikus dezakegu. Ez luke zentzurik izango Finantza Saileko langileek enpresa baten sareko gailuetan konfigurazioak egin ahal izateak, edo marketin-saileko langile batek enpresako langile guztien nominetarako sarbidea izateak. Langileen artean funtzioak bereiziz gero, erabiltzaileen pribilegioak kontrolatuta eta haien eguneroko funtzioetara mugatuta daudela ziurta dezakegu.

Defentsa sakona

Printzipio hori informazioaren segurtasun-neurriei eta horien aplikazio-lekuari buruzkoa da. Gaur egun, mehatxu ugari eta askotarikoak jasaten dugunez, ez da nahikoa segurtasun-neurri bakar bat erakundearen puntu zehatz batean aplikatzea. Garrantzitsua da segurtasun-maila desberdinak ezartzea gure sistemetan eta horiek kudeatzen duten informazioan.

Segurtasun-maila bakoitzean aplika daitezkeen hainbat neurri edo kontrol daude. Ondoren, maila bakoitzerako adibide bat erakutsiko dugu:

- **Politikak, prozedurak eta kontzientziazioa:** enpresaren ekipoetan pasahitzak kudeatzeko politika bat izatea, erabiltzaileak aldian-aldian berritu behar izan dezan eta gutxieneko karaktere batzuk bete ditzan.
- **Segurtasun fisikoa:** giltzaz itxitako komunikazio-armairu bat izatea, non sareko gailuak egongo diren.
- **Perimetroa:** suebaki bat instalatzea eta konfiguratzea, enpresaren sarrerako eta irteerako konexioak kontrolatzeko.
- **Barne-sarea:** erakundearen barne-sareen bereizketa logikoa egitea, VLAN (Virtual Local Area Network) sareak erabiliz.
- **Host-a:** software gaiztoaren aurkako babesa, birusen kontrako sistemak instalatuz.
- **Aplikazioa:** maila korporatiboan identitate-sistema bat inplementatzea.
- **Datuak:** ekipoetan biltegiratutako informazioa zifratzea.

Maila batean neurri bat edo batzuk aplikatzeak ez digu bermatzen erabat seguru egongo garenik. Gerta liteke erakundean segurtasun fisiko handia izatea, segurtasun-guardia bat izanda, eraikinerako sarbideak kontrolatuta, sareko gailuak giltzaz itxitako komunikazio-armairu batean babestuta izanda... baina gainerako segurtasun-mailetan beste kontrolik ez aplikatzea. Edozein unetan izan dezakegu kanpoko sare-konexio baten bidezko eraso bat, eta gure ekipoetan gordetako datu guztiak bistaratu daitezke, ez badugu neurririk gainerako mailetan. Edozein sistema informatikotan, puntu ahulenaren segurtasun-mailaren arabera definitzen da multzo osoaren segurtasun-maila. Garrantzitsua da, beraz, geruza guztiak buruan izan eta horietako bakoitzean kontrolak ezartzea, defentsa sakonaren printzipioa aplikatuz.

Segurtasun-mailak (editoreak sortu zuen irudia)

Informazio gehiago

VLAN sare logiko bat da, sare fisiko bera partekatzen duten gailuen multzo bat biltzen duena eta multzo bakoitzaren trafikoa isolatzen duena.
eu.wikipedia.org/wiki/VLAN

ADI

Edozein sistema informatikotan, puntu ahulenaren segurtasun-mailaren arabera definitzen da multzo osoaren segurtasun-maila.

Segurtasun informatikoari buruzko prestakuntza

Aurreko puntuan aipatu den bezala, sistema baten segurtasun-maila haren puntu ahulenaren segurtasun-mailaren arabera definitzen da. Ildo horretan, edozein informazio-sistemaren ahulgune nagusia hura erabiltzen duten pertsonak dira, erabiltzaileak. Ez da nahikoa segurtasun-maila guztietan dauden neurri guztiak aplikatzea, baldin eta erabiltzaileek ez badakite zer mehatxuk eragin diezaieketen, edo ez badakite nola jokatu mehatxu baten aurrean daudenean.

Funtsezkoa da etxeko erabiltzaileek eta enpresetako langileek zibersegurtasunari buruzko ezagutza jakin batzuk izatea. Badakigu arrakasta duten eraso gehienak ez direla segurtasun-neurririk edo -kontrolik ez izatearen ondorio, baizik eta erabiltzaileek ez jakitearen ondorio. Zentzu horretan, arrakasta-tasa handiena duen adibide ohikoenetako bat phishinga da. Eraso horiek erabiltzaileari engainua egitean oinarritzen dira: mezu bat bidaltzen zaio, hirugarren pertsona edo entitate bat dela esanez, hark ekintza espezifiko bat egin dezan. Erabiltzailea fidatu egiten da mezuarekin eta urratsak jarraitzen ditu. Horren ondorioz, kasu askotan, datuak lapurtzen dira, kontuak eskuratzen dira eta abar.

Maila pertsonalean, interesgarria da segurtasunaren arloko informazio-iturriak ezagutzea, kontsultatu ahal izateko eta gai horri buruzko ezagutza eskuratzeko. Baliabide horiek informazio garrantzitsua dute, bai erabiltzaileentzat, bai enpresentzat, gaur egungo mehatxuez eta mehatxu horietatik babesteko moduez. Gainera, maila korporatiboan, interesgarria da langile guztientzako prestakuntza-programak ezartzea.

SEGURTASUNARI BURUZKO INFORMAZIO-ITURRIAK

Erreferentziazko dokumentua: ***A4C41A1D02***

Segurtasun informatikoari buruzko ikuskaritzak

Eremu pertsonalean zein lanean eragin diezaguketen mehatxuak ezagutzeaz eta babesteko neurriak aplikatzeaz gain, garrantzitsua da gure sistemen segurtasun-maila ezagutzea. Horretarako, segurtasun-ikuskaritzak egiten dira, informazio-sistemen multzo baten segurtasun-egoera ezagutzeko.

Segurtasun-ikuskaritzei esker, benetan, segurtasun-neurriak behar bezala aplikatzen ari direla eta beren funtzioa betetzen dutela egiazta daiteke. Ikuskaritza horiek, gainera, aurretik identifikatu ez diren eta erasoetarako bide izan daitezkeen ahuleziak daudela aurkitzeko balio dute. Ikuskaritzak funtsezko puntuak dira sistema edo erakunde baten segurtasun-egoera ezagutzeko.

Hainbat auditoria mota daude, baina, oro har, barne- edo kanpo-ikuskaritzetan sailka ditzakegu. Barne-ikuskaritzak erakundeko langileek egiten dituzte, beren sistemen gainean. Bestalde, kanpo-ikuskaritzak kanpoko enpresa bati kontratatzen zaizkio. Garrantzitsua da, ikuskaritzak egin aurretik. horien baldintzak eta irismena ezartzea, gaizki-ulertuak edo ezusteko arazoak saihesteko. Badira, halaber, egiaztatzeko aukera ematen duten ikuskaritzak, balizko bezero edo hornitzaileei nolabaiteko segurtasun-maila bermatzeko balio dutenak.

Informazioaren segurtasun-printzipioak ez aplikatzearen ondorioak

Gaur egungo gizartean, bai herritarrek bizitza pribatuan, bai enpresek eta erakunde publikoek informazio-sistemak erabiliz egiten dituzte eguneroko lanak. Gaur egun, negozio gehienak sistema informatikoen mende daude beren eragiketak egiteko. Izan ere, negoziorako balio handia dago enpresek erregistratzen, prozesatzen eta biltegiratzen dituzten datu guztietan.

Funtsezkoa da, beraz, ikusi ditugun informazioaren segurtasun-printzipioak betetzea, gure eguneroko zereginak eten ditzakeen erasorik jasango ez dugula bermatzeko. Bestela, ondorio negatibo ugari egon daitezke, bai maila pertsonalean, bai enpresentzat. Egunero, informazioaren segurtasunarekin lotutako eraso eta arriskuei buruzko albiste ugari ikus ditzakegu. Hauek dira, ingurune korporatiboan, ondorio horien adibide batzuk:

- **Sinesgarritasuna galtzea** eta, beraz, erakundearen irudiari eta ospeari kaltea eragitea.
- Bezeroen, langileen, hornitzaileen eta merkataritza-bazkideen **datu konfidentzialak lapurtzea.**
- Europar Batasunean datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dauden **legeak ez betetzea.**
- **Galera ekonomikoa,** ezin bada berreskuratu gure sistemetatik ateratako edo ezabatutako informazioa. Gainera, erasotzaileek diru-kopuru bat ordaintzeko eska dezakete, *ransomware* izeneko software gaiztoa erabiliz. Horrelako programak dira gaur egungo mehatxu nagusietako bat.
- **Ekoizpen-prozesuak geldiaraztea**, salmentak galtzea eta zerbitzuaren kalitatean eragina izatea.

Segurtasuna

A1 maila 4.1 Gailuen babesa

Segurtasunari buruzko informazio-iturriak

Segurtasunari buruzko informazio-iturriak

Segurtasun-maila handiagoa izateko eta aurre egin beharreko arriskuez jabetzeko, beharrezkoa da informatuta egotea. Askotan, prentsan edo sare sozialetan izaten dugu zibersegurtasunari buruzko albisteen berri. Dokumentazio honetan zibersegurtasunari buruzko zenbait informazio-iturri fidagarri daude.

Zibersegurtasunaren arloko organismo garrantzitsuak

Azken hamarkadetan, zibersegurtasunean espezializatutako organismoak sortu dira. Esparru horretan diharduten enpresak egon arren, beharrezkoa da, halaber, **ziberespazioa zaintzen, herritarrari informazioa ematen, enpresei aholkua ematen edo azpiegitura kritikoak babesten aritzen diren** erakunde publikoak izatea.

Organismo horiek ezagutzeak informazioa edo aholkularitza behar dugunean haiengana jotzeko aukera ematen digu, baita, aldi berean, herritar gisa baliagarriak izan dakizkigukeen zibersegurtasun-kontzeptu berriei buruz ikasteko aukera ere.

Estatu-eremua: Espainiako organismoak

Espainian hainbat organismo daude, hainbat funtziotan dihardutenak. Organismo nagusietako bat **Zentro Kriptologiko Nazionala (CCN)** (*ccn-cert.cni.es*)da, Espainiako Inteligentzia Zentro Nazionalaren (CNI) mendekoa. CCNren aurpegi publikoa zibersegurtasuneko gorabeherei eta larrialdiei erantzuteko ekipoa da: CCN-CERT. Bere webgunean bere lanari buruzko informazio asko aurki dezakegu: ziberespazio seguruagoa eta fidagarriagoa lortzea, eta informazio klasifikatua eta kaltebera babestea.

CCN-CERT zentroarekin batera, beste organismo garrantzitsu batzuk daude, hala nola **Azpiegituren Babeserako eta Zibersegurtasunerako Zentro Nazionala (CNPIC)** edo Defentsa Ministerioaren **Ziberespazioaren Agintaritza Bateratua (MCCE)**. Bestalde, Guardia Zibilaren **Delitu Telematikoen Taldea (GDT)**

edo Polizia Nazionalaren **Ikerketa Teknologikorako Brigada Nagusia (BCIT)** Estatuko segurtasun-erakundeetako unitate bereziak dira informatikarekin lotutako delinkuentzia ikertzeko eta jazartzeko.
Badira beste organismo batzuk ere, hala nola OSI edo INCIBE, jarraian sakon aztertuko ditugunak.

Erkidego-eremua: Europako organismoak

Azken urteotan, Europar Batasunak hainbat erregelamendu eta ekimen bultzatu ditu zibersegurtasunaren erkidego mailako egoera hobetzeko. Ildo horretan, Europako erakunde nagusia **European Union Agency for Cybersecurity (ENISA)** da. Erakunde horrek Batasuneko estatu kide guztiek zibersegurtasun-maila handia izatea zaintzen du.

ENISAz gain, ziberkrimen antolatuaren aurka borrokatzeko talde bat dago, **European Cybercrime Centre (EC3)** izenekoa. Organismo hori Europolek sortu zuen, eta Europar Batasuneko herritarrak, enpresak eta gobernuak online krimenetik babestea du helburu nagusi, horrelako mehatxuei eman beharreko erantzuna indartuz.

Nazioarteko eremua: beste herrialde batzuetako organismoak

Nazioartean, estatu bakoitzak zibersegurtasunaren arloko hainbat erakunde eta legeria ditu. Testuinguru horretan, bere garrantziagatik eta gaitasun operatiboengatik, ezagunenetako bat Ameriketako Estatu Batuetako **National Security Agency (NSA)** agentzia da. Inteligentzia-agentzia hori informazioa biltzen eta prozesatzen eta seinale-inteligentzian espezializatuta dago. Erlazionatutako beste agentzia bat **Cybersecurity & Infrastructure Security Agency (CISA)** da, zeinak baliabide ugari baititu ingelesez zibersegurtasunaz.

Informazio gehiago

CCN-CERTen webgunea: *ccn-cert.cni.es*
CNPICren webgunea: *cnpic.interior.gob.es/opencms* **MCCEren webgunea:** *e.digitall.org.es/emad* **GDTren webgunea:** *gdt.guardiacivil.es/webgdt*
BCITren webgunea: *e.digitall.org.es/bcit*
ENISAren webgunea: *enisa.europa.eu*
EC3ren webgunea: *e.digitall.org.es/EC3* **NSAren webgunea:** *nsa.gov* **CISAren webgunea:** *cisa.gov*

OSI: Internautaren Segurtasun Bulegoa

Internautaren Segurtasun Bulegoa (OSI) INCIBEren parte da, eta Interneten nabigatzean sor daitezkeen segurtasun-arazoak saihesteko eta konpontzeko behar diren informazioa eta euskarria ematen ditu. Helburu nagusia internautari eragin diezaioketen zibersegurtasun-arazoez kontzientziatzea eta horiek ikusaraztea da. Ematen digun informazioa oinarrizko ezagutza digitalak dituen herritarrari zuzenduta dago batez ere.

Bere webguneak mota guztietako informazio-baliabide ugari ditu: tresnak, gidak eta abar. Hona hemen herritarrentzako informazio erabilgarriaren adibide batzuk:

- **Eguneroko eguneraketak**: OSIk informazio eguneratua ematen du albisteei, zibersegurtasun-abisuei, blog-artikuluei eta abarri buruz. Atal horretako adibiderik argigarrienak "Benetako historiak" dira. Artikulu horietan, eraso edo mehatxu bat deskribatzen duten egoeren benetako adibideak aurki ditzakegu, baita guri gertatuz gero jarraitu beharreko jarraibideak ere. Adibidez, OSIk ***deepfake-mehatxuak*** azaltzen dizkigu, ***baita nola jokatu behar den ere gure kontuak bahitu badituzte*** (*incibe.es/ciudadanía*).
- **Kanpainak:** mota horretako argitalpenak hainbat gaitan banatzen dira: pasahitzak, gailu mugikorrak edo IoT-a, esaterako. Horietako bakoitzaren barruan, OSIk gai horri buruz dituen baliabideen zerrenda bat aurki dezakegu, hala nola infografiak, bideoak, benetako historiak eta abar. Horren adibide da "***Ingeniería social: que no te engañen*** " kanpaina (*incibe.es/ciudadanía/tematicas*).
- **Geure burua babesten ikasteko eskuliburuak:** OSIk hainbat eskuliburu argitaratzen ditu, babes-gomendioekin eta hainbat gairekin. Arazo zehatzei heltzeari, horiek ulertzeari eta horien aurrean babesteko hartu beharreko neurriei erreparatzen die. Hona hemen gai horietako batzuk: ***nola babestu zure Wi-Fi sarea*** edo ***nola zaindu zure pribatutasuna*** (*incibe.es/ciudadanía*).

Informazio gehiago

IoT Internet of Things-en siglak dira, eta euskaraz "Gauzen Internet" esan nahi du. Sentsoreak, softwarea eta beste teknologia batzuk dituzten objektu fisikoen sarea deskribatzen duen kontzeptua da (Internet bidez edo beste komunikazio-sare batzuen bidez beste gailu eta sistema batzuekin konektatzeko eta datuak trukatzeko).

e.digitall.org.es/iot

- **Baliabideak:** atal horretan hainbat baliabide daude, hala nola tailerrak, gidak, tresnak, zerbitzuak eta abar.
- **Jolas hezitzaileak:** bere webgunean, zibersegurtasunarekin lotutako kontzeptuak hobeto ulertzen laguntzen diguten jolasak ere topa ditzakegu, hala nola ***mahai-jokoak*** (*incibe.es/ciudadanía*), zuzenean deskarga daitezkeenak.

Aipatzekoa da OSIk eskaintzen dizkigun baliabideen artean ekimen partikular bat dagoela, txikienen kontzientziazioan eta babesean oinarritutakoa: **Internet Segura 4 Kids.** Ekimen horren helburua da adingabeei, irakasleei eta familiei zibersegurtasunaren arloko prestakuntza ematea.

Informazio gehiago

OSIren webgunea: *osi.es*
Internet Segura 4 Kids-en webgunea:*is4k.es*

INCIBE: Zibersegurtasunaren Institutu Nazionala

Zibersegurtasunaren Institutu Nazionala (INCIBE) zibersegurtasunean erabat diharduen gobernu-organismo bat da, eta herritarrak, enpresak, sare akademikoak edo ikerketa-sareak eta beste sektore estrategiko batzuk ditu ardatz.

Dagoeneko aipatu da OSI, herritar guztiei zuzendua. Enpresak ere material erabilgarriz hornitzeko, INCIBEk "Babestu zeure enpresa" ekimena dauka. Horren bidez, enpresak prestatu nahi dituzte, batez ere ETEak, eta baliabideak eskaini, hala nola ***enplegatuak entrenatzeko kontzientziazio-kit-a*** (*e.digitall.org.es/kit-incibe*). Gainera, institutuak zibersegurtasunaren sektorean ekintzailetza sustatzera bideratutako baliabideak ditu, hala nola “INCIBE Emprende” ekimena.

Informazio gehiago

INCIBEren webgunea: *incibe.es*
"Protege tu empresa" ekimena: *incibe.es/protege-tu-empresa*
"INCIBE Emprende" ekimena: *incibe.es/emprendimiento*

INCIBEk webgune interaktibo bat ere badu, ekintzaileak eta ETEak zibersegurtasunarekin lotutako kontzeptuetan sar daitezen. Horretarako, ikusleari haren prestakuntzan laguntzen dioten bi animazio-pertsonaia dituzte. Prestakuntza hori enpresa-sektore edo ibilbide desberdinetara egokituta dago.

ITINERARIOS DE CIBERSEGURIDAD INCIBE

itinarios.incibe.es

URRATS BAT HARATAGO: ZIBERSEGURTASUNAREN KUDEAKETA

Zibersegurtasuna enpresa txiki eta ertainetan nahiz enpresa handietan kudeatzen da. Bideo honetan, eragina eta arriskua bezalako kontzeptuak daude, enpresa baten mehatxuak kudeatzen laguntzen dutenak.

e.digitall.org.es/A4C41A2V02

CCN-CERT

Zentro Kriptologiko Nazionala (CCN-CERT) zibersegurtasunaz eta hari buruzko Espainiako legeriaz eguneratuta egoteko informazio-iturri nagusietakoa da. Organismo hori arduratzen da enpresa askok erabiltzen dituzten zibersegurtasun-tresnak garatzeaz. Zibersegurtasunari buruzko prestakuntza espezifiko eta teknikorako interesgarrienetako bat da ***Ángeles*** (*e.digitall.org.es/angeles*); enpresei bideratutako hainbat mailatako baliabide ugari duen tresna bat da, hala nola "ziberaholkuak" edo jardunbide egokiei buruzko txostenak.

CCNk aldizkako gida tekniko eta segurtasun-txosten ugari ditu, hala nola "Ciberamenazas y Tendencias" urteko txostena, urte bakoitzaren amaieran argitaratzen dena eta Espainiako zibersegurtasunaren egoera aztertzen duena.

Informazio gehiago

Zibersegurtasunaren Eskema Nazionalari (ENS) buruzko webgunea: *ens.ccn.cni.es/es*
CCN-CERTren txosten publikoen webgunea*e.digitall.org.es/informes-cert*
CCN-CERTren giden webgunea: *e.digitall.org.es/guias-cert*

ENISA

European Union Agency for Cybersecurity (ENISA) Europako organismo bat da, zibersegurtasunari buruzko ingelesezko baliabide ugari ematen dituena. CCN-CERTk bezala, Europako agentzia horrek aldizkako txostenak ditu, hala nola "Cyber Europe", urte amaieran argitaratzen dena eta Europako zibersegurtasun-joeren laburpena jasotzen duena.

Haren webgunea (***enisa.europa.eu***) oso erabilgarria da informazioa aurkitzeko, gaiaren arabera antolatutakoa.

DigitAll

Segurtasuna

4.2 DATU PERTSONALEN ETA PRIBATUTASUNAREN BABESA

Segurtasuna

A1 maila 4.2 Datu pertsonalen eta pribatutasunaren babesa

Datuen babesari buruzko herritarren eskubideak

Datu pertsonalen babesari buruzko herritarren eskubideak

Informazio-eskubidea

Espainiako Konstituzioak jasotzen dituen eskubideak hainbat kategoriatan sailkatzen dira, haien garrantziaren arabera. Garrantzitsuenak oinarrizko eskubideak dira. Datu pertsonalak babesteko eskubidea oinarrizko eskubidea da. Hortik aurrera, legegileak edukia ematen dio eskubide horri, hainbat bidetatik: betebeharrak ezartzen dizkie datu pertsonalak tratatzen edo manipulatzen dituzten subjektuei, eskubide zehatzagoak aitortzen dizkie herritarrei edo jarduteko aginduak ezartzen dizkie botere publikoei. Datu pertsonalak babesteko eskubidea hainbat eskubidetan banantzen da, eta dokumentu honek, hain zuzen, horiek garatzen ditu.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO HERRITARREN ESKUBIDEAK (I)

e.digitall.org.es/A4C42A2V08

Lehena informazio-eskubidea da. Hori adierazteko moduak oso zabalak eta askotarikoak dira (adibidez, aurrerago landuko den informazioa eskuratzeko eskubidea informazio-eskubidearen zehaztapen gisa har daiteke).

Eskubide hori bermatzeko adierazpenetako bat tratamendu-arduradunari interesdunari informazio jakin bat emateko betebeharra ezartzea da. Araudiak informazio hori geruzen edo mailen arabera eman ahal izatea aurreikusi du:

- Lehen geruza, oinarrizko informazioa.
- Bigarren geruza, informazio zehatza.

Informazioaren edukia aldatu egiten da datu pertsonalak interesdunak zuzenean emandakoak badira (adibidez, datuak sartzen badira Facebooken edo YouTuben kontu bat irekitzeko) edo hirugarren batek emandakoak (adibidez, hotel-kate batek datu pertsonal jakin batzuk lagatzen badizkio bidaia-agentzia bati publizitate-kanpaina bat egiteko).

Datu pertsonalak interesdunak ematen dituenean eman beharreko informazioa

Lehen geruzan (oinarrizko informazioa), Datuak Babesteko Espainiako Agentziak honako informazio hau ematea gomendatzen du:

- Tratamendu-arduradunaren identitatea.
- Tratamenduaren helburuen deskribapen erraza, profilak egitea barne, halakorik balego.
- Tratamenduaren oinarri juridikoa.
- Datuak hirugarrenei laga ahal izatea aurreikusi ote den. Hirugarren herrialdeetarako transferentziak aurreikusi diren ala ez.
- Dokumentu honetan azaltzen diren eskubideak baliatzeko aukera.
- Helbide elektroniko bat edo beste bitarteko bat (adibidez, pdf dokumentu bat deskargatzea), gainerako informazioa erraz eta berehala eskuratu ahal izateko.

Bigarren geruzan (informazio zehatza), honako informazio hau txertatzea gomendatzen da:

- Arduradunarekin harremanetan jartzeko datuak. Ordezkariaren identitatea eta datuak (halakorik balego). Datuen babeseko ordezkariarekin harremanetan jartzeko datuak (halakorik balego).
- Tratamenduaren xedearen deskribapen luzeagoa. Datuak gordetzeko epeak edo irizpideak. Erabaki automatizatuak, profilak eta aplikatutako logika.
- Tratamenduaren oinarri juridikoaren xehetasuna, legezko betebeharraren, interes publikoaren edo interes legitimoaren kasuetan. Datuak emateko obligaziorik dagoen edo ez, eta ez egitearen ondorioak.
- Hartzaileak edo hartzaile-kategoriak. Egokitasunari buruzko erabakiak, bermeak, arau korporatibo lotesleak edo egoera espezifiko aplikagarriak.
- Nola baliatu datuetara sartzeko eta horiek zuzendu, ezabatu edo eramateko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko eskubideak. Emandako baimena ezeztatzeko eskubidea. Kontrol-agintaritzaren aurrean erreklamazioa aurkezteko eskubidea.

⚠ ADI

Datu pertsonalak interesdunek emandakoak badira, bilketa hori egin aurretik eman behar da informazioa.

Datu pertsonalak interesdunak ematen ez dituenean eman beharreko informazioa

Datu pertsonalak interesdunarengandik jaso ez direnean, **aurreko atalean adierazitako informazioaz gain**, honako hau eman behar da:

Lehen geruzan (oinarrizkoa):

- Datuen iturria; hau da, jatorria.

Bigarren geruzan (zehatza):

- Datuen jatorriari buruzko informazioa, sarbide publikoko iturrietatik atera badira ere. Sarbide publikoko iturriak dira, adibidez, egunkari eta aldizkari ofizialak, gizarte-komunikabideak, webguneak eta abar.
- Tratatzen diren datuen kategoria (adibidez, identifikazio-datu orokorrak, hala nola izena edo telefonoa; edo datu kalteberak, hala nola arraza-jatorria edo erlijio-iritziak).

ADI

Datu pertsonalak interesdunarengandik jasotzen ez direnean, tratamendu-arduradunak hilabeteko epean eman behar dio bilketa horren berri, eta, gehienez ere, interesdunari egindako lehen jakinarazpenean.

Informazio gehiago

29. artikuluko datuen babesari buruzko lantaldea. Gardentasunari buruzko gidalerroak (EB) 2016/679 Erregelamenduaren arabera (WP 260). *e.digitall.org.es/articulo29*

Sarbiderako eskubidea

Interesdunak eskubidea du tratamendu-arduradunak egiazta diezaion berari buruzko datu pertsonalak tratatzen ari diren ala ez.

Kasu horretan, arduradunak bi gauza eman behar ditu:

- Datu horien kopia bat edo datuetara urrunetik, zuzenean eta segurtasunez sartzeko sistema bat.
- Aurreko atalean azaldutakoarekin bat datorren informazioa (tratamenduaren xedeak, datu pertsonalen kategoriak, hartzaileak, kontserbazio-epea eta abar).

ADI

Datuetara sartzeko eskubidea baliatzeak aukera ematen dio interesdunari jakiteko enpresek zer dakiten berari buruz -hau da, zer datu pertsonal tratatzen dituzten- eta haien zilegitasuna eta zehaztasuna kontrolatzeko.

Eskubide horrek muga material eta formal batzuk ditu. Materialei dagokienez, bi dira:

- Ez du eragin negatiborik izan behar hirugarrenen eskubide eta askatasunetan (merkataritza-sekretuak edo jabetza intelektuala barne).
- Interes publiko jakin batzuk (Estatuaren segurtasuna, defentsa, segurtasun publikoa...).

Muga formalari dagokionez, arduradunak ukituari buruzko datu asko tratatzen dituenean eta ukituak datuetara sartzeko duen eskubidea baliatzen duenean, baina ez duenean zehazten datu guztiez edo horietako batzuez ari den, arduradunak eskatu ahal izango dio zehaztu dezala zer tratamendu-datu edo -jarduerari buruz ari den.

Informazio gehiago

Datuak Babesteko Europako Batzordea. 1/2022 Jarraibideak, sarbide-eskubideari buruzkoak.*e.digitall.org.es / directrices*

Zuzentzeko eskubidea

ADI

Datuak zuzentzeko eskubidea datu okerrak edo osatugabeak tratatzen ari direnean erabil daiteke.

Datuak zuzentzeko eskubideak bi adierazpen ditu:

- Eskubide horren bidez, interesdunak eskubidea du tratamendu-arduradunak zuzen diezazkion, justifikaziorik gabeko luzamendurik gabe, berari buruzko datu okerrak. Interesdunak argi adierazi behar du eskaeran zer daturi buruz ari den eta zer zuzenketa egin behar den.
- Bestalde, tratamenduaren xedeak kontuan hartuta, osatu gabeko datu pertsonalak osatzeko eskubidea. Horrek esan nahi du interesdunak ematen duen informazioa tratamenduaren xedeetara egokitzen bada eta arduradunak tratatzen dituen datuak osatzen baditu, arduradunak onartu eta bere tratamenduan sartu beharko duela (adibidez, kreditu-kaudimenari buruzko datuak).

Beharrezkoa izanez gero, interesdunak, eskabidearekin batera, tratatu beharreko datuak zehatzak ez direla edo osatu gabe daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

Nolanahi ere, arduradunak datuak zehatzak direla bermatu behar du; hau da, ofizioz ere egin behar du, inolako eskaerarik egin gabe.

Datuak ezabatzeko eta ahaztuak izateko eskubidea



Datuak ezabatzeko eskubideak esan nahi du interesdunak eskubidea duela tratamendu-arduradunak, justifikaziorik gabeko luzamendurik gabe, berari buruzko datu pertsonalak ezaba diezazkion. Tratatzen diren datu guztiekin edo horietakoren batekin bakarrik erabil daiteke.

Ezabaketa derrigorrezkoa da kasu hauetakoren batzuk gertatzen badira:

1 | Datu pertsonalak jada beharrezkoak ez badira bilketaren edo tratamenduaren xedeetarako.
2 | Interesdunak tratamenduaren oinarri den baimena erretiratzen badu, eta tratamenduak beste oinarri juridikorik ez badu.
3 | Interesdunak tratamenduaren aurka egiten badu eta tratamendu horretarako beste arrazoi legitimorik ez badago.
4 | Datu pertsonalak legez kontra tratatu badira.
5 | Datu pertsonalak legezko betebehar bat betetzeko ezabatu behar badira.
6 | Datu pertsonalak informazio-gizartearen haurrei buruzko zerbitzu-eskaintzaren inguruan lortu badira.

⚠ ADI

Arduradunak datu pertsonalak publiko egin baditu eta horiek ezabatzera behartuta badago, arrazoizko neurriak hartuko ditu datu pertsonal horiek tratatzen ari diren beste arduradun batzuei jakinarazteko, haiek ere ezaba ditzaten datu horiek. Hori da **ahaztua izateko eskubidea**.

Ezabatzeko eskubidea publiko egin diren datuen gainean baliatzen bada, ahaztua izateko eskubideaz hitz egiten da. Beraz, ahaztua izateko eskubidea datu pertsonalak argitaratu dituen arduradunaren aurrean baino ez da eskatu behar, eta ez da datuen komunikazio hutsaren kasuetara iristen, hau da, datu horiek pertsona edo entitate bereziei eman zaizkienean.

OHARRA

Auzitegi Gorenak adierazi du ezin dela ezabatze-eskubidea egikaritu bataio-liburuko datuen gainean.

OHARRA

2014tik 2020ra, Googlek 4 milioi esteka baino gehiago kentzeko eskaerak jaso zituen. Espainian, onartutako eskaeren ehunekoa % 40 ingurukoa da.

Nolanahi ere, ezabatzeko eskubidea ez da absolutua, eta araudiak jasotzen duenez, baldintza jakin batzuekin bada ere, kasu batzuetan ez da egokia. Nagusiak:

1 | Adierazpen- eta informazio-askatasunerako eskubidea baliatzeko (adibidez, prentsa digitalean argitaratutako albisteak).
2 | Datuen tratamendua eskatzen duen eta tratamendu-arduradunari aplikatzen zaion legezko betebehar bat betetzeko, edo interes publikoaren izenean edo arduradunari emandako botere publikoen izenean egin beharreko eginkizun bat betetzeko (adibidez, ikerketa polizial edo penalei buruzko zenbait datu).
3 | Osasun publikoaren arloko interes publikoko arrazoiengatik.
4 | Interes publikoaren izenean artxibatzeko, ikerketa zientifiko edo historikorako, edo estatistika-xedeetarako.
5 | Erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo aldezteko.

Informazio gehiago

Datuak Babesteko Europako Batzordea. 5/2019 Jarraibideak, ahazteko eskubidearen irizpideei buruzkoak, DBEOren araberako bilaketa-motorren kasuan. *e.digitall.org.es /directrices*

Tratamendua mugatzeko eskubidea

DATU PERTSONAREN BABESARI BURUZKO HERRITARREN ESKUBIDEAK (II)

e.digitall.org.es/A4C42B1V08

Horrek esan nahi du interesdunak eskubidea duela gordetako datu pertsonalak arduradunak marka diezazkion, behin-behineko tratamendua mugatzeko asmoz, kasu hauetakoren bat gertatzen bada:

- Interesdunak datuen zehaztasuna aurkaratzen badu, arduradunak egiaztatzen duen bitartean.

- Tratamendua legez kontrakoa bada eta interesduna bere datuak ezabatzearen aurka badago eta, horren ordez, erabilera mugatzeko eskatzen badu. Kasu horretan, arduradunak egindako arau-haustea egiaztatzeko frogak suntsitzea saihestu nahi da funtsean.
- Arduradunak datuak behar ez baditu tratamenduaren xedeetarako, baina interesdunak behar baditu erreklamazioak egikaritu edo aldezteko.
- Interesdunak tratamenduaren aurka egin badu, tratamendua jarraitzeko arduradunak emandako arrazoi legitimoak interesdunaren arrazoien gainetik dauden egiaztatzen den bitartean.

Muga horrek irauten duen bitartean, tasatutako arrazoi batzuengatik bakarrik tratatu ahal izango dira datuak, datuen kontserbazioa salbu: interesdunaren onespena, erreklamazioak egitea, beste pertsona baten eskubideak babestea eta interes publikoko arrazoiak.

Azaldu berri dugun bezala, muga hori interesdunaren eskubide gisa arautzen da, eta ez tratamenduaren arduradunaren betebehar gisa. Hau da, tratamendu-arduradunak ez du tratamendua ofizioz mugatzeko betebeharrik, azaldutako kasuetakoren batzuk gertatzen badira; aitzitik, hori gertatzeko, interesdunak berariaz baliatu beharko du eskubide hori.

ADI

Tratamendua behin-behinean mugatuko da, kasu jakin batzuk gertatzen edo egiaztatzen diren bitartean.

Datuen eramangarritasun-eskubidea

Interesdunak eskubidea du berari buruzko datu pertsonalak, tratamendu-arduradun bati emandakoak, erabilera komuneko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean jasotzeko, bai eta beste tratamendu-arduradun bati transmititzeko ere, hasierako arduradunak, zeinari eman zizkion datuak, hori eragotzi gabe.

Interesdunak emandako datuen gainean baliatu ahal izango da eskubide hori. Horiek ez dira soilik interesdunak kontzienteki eta aktiboki eman zituenak (adibidez, formulario baten bidez); erabiltzaileak zerbitzu edo gailu jakin baten erabileran egindako jardueratik lortutakoak ere sartzen dira kontzeptu horretan, nahiz eta horiek ez diren benetan aktiboki entregatzen (adibidez, entrenamenduko app batean erregistratutako erabiltzaile baten jarduera fisikoaren historiala). Kanpoan geratzen dira tratamendu-arduradunak sortutako datuak (adibidez, app horrek datu horietatik abiatuta sortzen dituen puntuazioak edo estatistikak).
Eskubide horrek bi baldintza bete behar ditu:

1 | Tratamendua onespenean edo kontratu batean oinarrituta egotea. Tratamenduaren zilegitasun-arrazoiak beste batzuk badira (adibidez, legezko betebehar bat), datuak ezin izango dira eskubide horren xede izan.
2 | Tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egitea.

Eskubide hori baliatuta, interesdunak eskubidea izango du datu pertsonalak zuzenean arduradunez arduradun transmititzeko, teknikoki posible denean. Adibidez, pertsona batek banku-entitate batean helbideratutako ordainagirien datuak beste banku-entitate batera eramatea.

Begi-bistakoak dira eskubide hori baliatzeak ekar ditzakeen inplikazio eta zailtasun praktiko eta teknikoak. Pentsa dezagun mota guztietako eta formatu desberdinetako zenbat datu pertsonal mugitzen diren sare sozial, blog, *cloud computing* zerbitzu, posta elektronikoko zerbitzu eta abarretan. Zerbitzu horien guztien esku uzten da datu pertsonalak biltegiratzea eta tratamendu masiboa ematea. Helburua da mekanismo juridikoak ezartzea -zailtasun teknikoak argudiatuta- interesdunak betiko gera ez daitezen, digitalki, hornitzaile jakin baten gatibu. Gainera, horrek eragin onuragarria du lehiaren sustapenean.

Hori dela eta, arau eta formatu komun elkarreragingarrien multzo bat egin behar da, datuen eramangarritasun-eskubidearen eskakizunei erantzuteko. Hala ere, bide izugarri luzea dago egiteke.

